

# GEOPARKEAN GIDARI IZATEKO TREBAKUNTZA IKASTAROA

2018ko azaroa



Interreg  
Atlantic Area

European Regional Development Fund



EUROPEAN UNION

Atlantic Geoparks

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca




## Testuingurua

Euskal Kostaldeko Geoparkearen apustu nagusia da kalitatezko irteera gidatuen eskaintza zabalari eustea, Euskal Kostaldeko Geoparkea osatzen duten hiru herrietan – Deban, Mutrikun eta Zumaian – dugun ondare naturala eta kulturala ezagutzera emateko.

Horretarako, ezinbestekoa da ondo trebatutako gidariak edukitzea, hauek izango baitira gure lurraldearen balio nagusiak interpretatu eta modu erakargarri batean bisitariei azalduko dizkietenak.

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



## **Ikastaroaren helburua**

Geoparkearekin loturiko gai zehatzetan gidariak trebatzea. Ikastaroaren baitan, Euskal Kostaldeko Geoparkeari buruzko oinarrizko ezagutza landuko da, bertako ondare naturala eta kulturala, eta gidarien lanarekin loturiko bestelako kontzeptuak ere azalduko dira, hala nola, interpretazioa, komunikazioa, taldeen kudeaketa edota ekintzailletza.

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



## **Ikastaroaren egitura eta datak**

### **Azaroak 6, 7 eta 8. Azalpen teorikoak (12 ordu)**

Geoparkeak dituen balio nagusiei buruzko azalpenak, funtzionamendua, Geoparkeen Munduko Sarea, komunikazioa, taldeen kudeaketa, etabar.

### **Azaroak 13, 14 eta 15. Irteerak (17 ordu gutxigorab.)**

Geoparkeak eskaintzen dituen irteera gidatuak egingo dira, ibilaldi bakoitzaren diskurtso interpretatiboa eta egitura lantzeko.


### **Praktikak eta akreditazioak**

Ikasleak ebaluatzeko ariketa praktikoa egingo da; ikasle bakoitzak irteera gidatu bat egin beharko du. Kontuan hartuko dira:

- Diskurtso interpretatiboa menperatzea.
- Lengoia eta taldearen aurrean komunikatzeko gaitasuna.
- Hizkuntzak.

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



## Plaza kopurua eta ikasleen profila

- Plaza mugatuak dira: 30 pertsona.
- Nori dago zuzenduta: Geoparkean gidari lanetan ari direnei edo etorkizunean gidari lanetan jarduteko interesa duten pertsoneri. Geoparkean bizi direnek lehentasuna izango dute.
- 30 eskaera baino gehiago jasoko balira, Geoparkeak aukeraketa bat egingo du. Hauek izango dira kontuan hartuko diren merituek:
  - Titulu akademikoa
  - Hizkuntza egiaztagiriak
  - Gidari lanean esperientzia izatea
  - Jarduerarekin loturiko beste meritu batzuk

# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca



## Informazio orokorra eta izen-ematea

Akreditazio fasean parte hartzeko ikasleek gutxienez ikastaro-orduen %80 bete behar dute.

Ez da titulu ofizial bat eta akreditazioak Geoparkeko bisita gidatuak egiteko gaitzen du soilik.

Ikastaroa bi hizkuntzatan eskainiko da; eskolak eta irteerak euskaraz (1) eta gaztelaniaz (2) izango dira.

Non: Ikastaroa Debako Kultur Elkartean egingo da (J.M. Ostolaza kalea, 12. 20820 Deba).

Ikastaroa doakoa da.

Izen-ematea: urriaren 31ra arte, [geoparkea@geoparkea.com](mailto:geoparkea@geoparkea.com) helbidera idatziz. Bidali Cva eta konfirmazioa jaso arte itxaron.

Programa: bloke teorikoa

Azaroak 6	
16:00 - 16:15	Harrera eta ikastaroaren aurkezpena (1)
16:15- 17:00	Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea eta Geoparkeen Munduko Sarea (1)
17:00-18:00	Historia eta ondare kulturala (2)
18:00- 18:15	Atsedena
18:15- 19:00	Geoparkeko oinarrizko geologia (2)
19:15 - 20:00	Geodibertsitatea eta Geologia Interesguneen kudeaketa (GIG) (2)
Azaroak 7	
16:00-17:00	Geoturismoa, Lurraren Zientzien interpretazioa eta komunikazioa (2)
17:00-17:45	Arkeologia eta Aurrehistoria (1)
17:45 - 18:15	Atsedena
18:15 - 19:15	Ekologia eta babestutako espazio naturalak (1)
19:15 - 20:00	Bisitas gidatuak eta Geoparkeko baliabide interpretatiboak (2)
Azaroak 8	
16:00 - 17:30	Taldeen kudeaketa (2)
17:30 - 18:00	Atsedena
18:00 - 19:30	Gidari ekintzailea izateko gakoak (2)
19:30 - 20:00	Ondorioak eta itxiera (1)

Programa: bloke praktikoa

<b>BLOKE PRAKTIKOA</b>	
Azaroak 13	
Irteera Geologikoa + barkua (Zumaia)	10:00- 14:00
Marearteko zabalgunea (Zumaia)	15:00 -17:00
Azaroak 14	
Nautilus Interpretazioa Zentroa (Mutriku)	10:00-11:00
Lasturko bailara karstikoa (Deba)	11:00-13:00
Debako flysch beltza	14:30-17:00
Azaroak 15	
Mutrikuko hirigune historikoa + Arrietakua Jauregia	10:00-13:00
Olatzeko bailara (Mutriku)	15:00-17:00

**Akreditazioen** saioa ikastaroa amaitu eta gero egingo da, interesa duten pertsonen kopuruaren arabera.